

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO
MEKANIKOA

**METAL ERAIKUNTZETAKO
GOI MAILAKO TEKNIKARIA**

4. modulua: **Fabrikazio Mekanikoko Sistema Automatikoaren Programazioa**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL



FABRIKAZIO
MEKANIKOA

METAL ERAIKUNTZETAKO GOI MAILAKO TEKNIKARIA

4. modulua: **Fabrikazio Aekanikoko Gistema
5 utomatikoen Drogramazioa**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Argitalpena: 1.a, 2010eko abendua

Ale kopurua: 50 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net


Egileak: Iñaki Paz Arsuaga
Migel Mari Imaz Mintegi

Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTOA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta maketazioa: TRESDETRES

Lege-gordailua: BI-2516/2010



Orduak: 100
Unitate kopurua: 6

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzia oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzea eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzea gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.

AURKIBIDEA

UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04. or.
0 0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	05. or.
1 1. unitate didaktikoa: Automatismo mota bakoitzerako sarrera	07. or.
2 2. unitate didaktikoa: Automatizatorako kontrol elektrikoa	09. or.
3 3. unitate didaktikoa: Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak garatzea	17. or.
4 4. unitate didaktikoa: Automatismo hidraulikoak eta elektrohidraulikoak garatzea	22. or.
5 5. unitate didaktikoa: Kontrolatzaile logikoen bidez (PLC) programak egitea	26. or.
6 6. unitate didaktikoa: Automatizazio-proiektu bat egitea	31. or.



Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK				UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
M1	M2	M3	M4		
				UD0: Moduluaren aurkezpena.	1 h
X				UD1: Automatismoa mota bakoitzerako sarrera.	4 h
X				UD2: Automatizaziorako kontrol elektrikoa.	25 h
X		X	X	UD3: Automatismo pneumatikoak eta elektropneumatikoak garatzea.	20 h
X		X	X	UD4: Automatismo hidraulikoak eta elektrohidraulikoak garatzea.	15 h
X	X	X	X	UD5: Kontrolatzaile logikoen bidez (PLC) programak egitea.	15 h
X	X	X	X	UD6: Automatizazio-proiektu bat egitea.	20 h
GUZTIRA					100 h

1. multzoa Fabrikazio mekanikoaren automatizazioa.
2. multzoa: Sistema automatiko bat programatzea.
3. multzoa: Instalazio automatizatu bat prestatzea.
4. multzoa: Sistema automatizatuak kontrolatu eta ikuskatzea.



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA						Iraupena: 1 ordu					
Ikaskuntzaren helburuak:											
<ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluen garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldekideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluen unitate didaktikoen arteko eta moduluen eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 											
EDUKIAK								Multzoak			
								1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea.. 										
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluen ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluen helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 										
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluen garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 										
JARDUERA			METODOLOGIA				BALIABIDEAK				
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den				
			Ir.	Ik.							
J1. Ikasleen eta irakaslearen aurkezpena.	1	10 min	x	x	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteetik sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.				



J2. Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 min	x	x	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. PowerPoint-en egindako aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak. Informazioa duten fotokopiak.
J3. Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 min	x	x	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiaz edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.
J4-E1. Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten jakintzen identifikazioa.	5	30 min	x	x	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeak aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.

OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa banean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: AUTOMATISMO MOTA BAKOITZERAKO SARRERA

Iraupena: 4 ordu

IE1: Fabrikazio mekanikoko instalazio automatizatu baten osagaiak identifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Automatizazio-teknologiak aztertzea (pneumatikoa, elektrikoa, hidraulikoa).
2. Teknologia bakoitzerako aplikazioak bereiztea.
3. Eragingailuen eta kontrol-elementuen arteko lotura interpretatzea.
4. Jarduerak arduraz garatzea.

EDUKIAK						Multzoak				
						1	2	3	4	
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Sistema automatizatu baten osagaiak identifikatzea: indar-elementuak eta kontrol-elementuak. Automatizaziorako teknologiak elkarrekin alderatzea. Sistema automatiko bakoitzaren loturak ezartzea. 					X				
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Sistema automatizatu batean erabiltzen diren energia motak. Automatizazio elektrikoa. Automatizazio pneumatikoa. Automatizazio hidraulikoa. Tresnen eta erreminten sistema modular automatikoak. PLCak fabrikazio mekanikoan aplikatzea. 					X				
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Arazoak ebazteko ekimena. Makinen segurtasun-sistemei jarraitzea. 					X				
JARDUERA			METODOLOGIA			BALIABIDEAK				
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den			
			Ir.	Ik.						
J0. UDaren aurkezpena.		0,5 h	X	X	Ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko dira, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko da, eta modulua	Automatismo mota bakoitza ezagutzeko (elektrikoa, pneumatikoa, hidraulikoa). Ikasleak alde zuzenetik jarrera egokia	OCDa. Gardenkien bidez edo fisikoki, aplikazioak eta erabili beharreko			



					osetzen duten gainerako unitateekin lotuko da.	har dezan garatu beharreko lan motarekiko.	materiala erakutsiko dira.
E1. Aurretiatzko ezagupenei buruzko hasierako ebaluazioko berariazko proba.		0,5 h		X	Ikasleek, banaka, emango zaien galdera sortari erantzungo diote.	Ikasleen aurretiatzko jakintzak hautemateko. Helburuen eta norik bere aurretiatzko jakintzen jakitun izateko.	Galdera sorta.
J1. Azalpena, makinak automatizatzeko aplikazioen adibideei buruzkoa.	1-2-4	1,5 h	X	X	Irakasleak automatismoak automatizatzeko edukiak azalduko ditu. Ikasleek, eskuliburuetatik abiatuta, automatismo bakoitzaren aplikazioak interpretatuko ditu.	Ikasle guztiek energia mota bakoitza bereizi ahal izateko oinarriko funtsak ezagutzeko.	Powerpoint. Makinen eskuliburuak. Makinen eragingailuak.
J2. Bisita gidatua lantegian.	1-2-3-4	1,5 h	X	X	Irakasleak sistema automatizatu baten osagaiak erakutsiko ditu, eta betetzen duten eginkizunarekin lotuko ditu. Ikasleek teknologia bakoitzaren aplikazioa interpretatuko du.	Ikasleek aplikazio bakoitzaren benetako ikuspegia izan dezaten lortzeko. Automatizazioaren teknologia bakoitza erabiltzeko aukera balioesteko.	Lantegiko makinak.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> J0 jardueran aurretiatzko jakintzak baloratzeko proba egin bada, komeni da hori kontuan hartzea, erreferentziatzko elementutzat, unitatearen garapenean ikasle bakoitzak egindako ahalegina baloratzeko. 							



2. unitate didaktikoa: AUTOMATIZAZIORAKO KONTROL ELEKTRIKOA

Iraupena: 25 ordu

IE1: Fabrikazio mekanikoko instalazio automatizatu baten osagaiak identifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Automatizazio elektrikoko teknologiak aztertzea.
2. Elikatzeko sistemetako eta makinetako dokumentazio teknikoa hautatzea.
3. Instalazio mekanikoetan erabiltzen diren motor elektrikoak hautatzea.
4. Elikatzeko sistemen eta makinen funtzionamendu-parametroak kalkulatzea.
5. Oinarrizko sistema elektrikoetako eskemak marraztea.
6. Babesteko, elikatzeko eta kontrolatzeko sistemen ezaugarriak zehaztea.
7. Sistema automatikoa osatzen duten sekzioak konfiguratzea (indarra, agintea, sarrerak, irteerak, babesak, eta abar).
8. Osagaiak hautatzeko magnitude elektrikoak zehaztea.
9. Erregulazio- eta kontrol-sistemen elementuak hautatzea.
10. Jarduerak arduraz garatzea eta lanbidearekiko konpromisoa erakustea.

EDUKIAK		Multzoak			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Korrante zuzeneko eta altemoko makinen eta sistema osagarrien identifikazioa, deskribapena eta aplikazioak. • Funtzionamendu-parametroak neurtzea eta egiaztatzea. • Eskemak interpretatzea. • Babes-gailuak zehaztea. • Konexio-eskemak lantzea. • Instalazio termikoen eta fluidodunen indar eskemak eta maniobra-eskemak lantzea. • Eroale elektrikoak hautatzea. • Osagai osagarriak hautatzea. 	X X X X X X X X			
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Sistema monofasikoak. Sistema trifasikoak. • Osagai pasiboak: erresistentziak, bobinak eta kondentsadoreak. • Transformadoreak: motak eta ezaugarriak. • Korrante zuzen eta korrante altemoko motorrak. Motak, ezaugarriak eta aplikazioak. 	X X X			



	<ul style="list-style-type: none"> Zirkuituen elementuak: etengailuak, kommutagailuak, sakagailuak, erreleak, kontaktoreak. Segurtasun-baldintzak. Babesak. Motak eta ezaugarriak. Aplikazioak. Aplikatzekoak diren arauak eta erregelamenduak. 				X			
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Eskemetan erabilitako sinbologia ezagutzearen garrantzia baloratzea, irudikatzen den sistema behar bezala ulertzeko. Makinen segurtasun-sistemei jarraitzea. Arazoak ebazteko ekimena. Autonomia lanak egitean. 				X			
JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK	
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J0. UDaren aurkezpena.		0,5 h	X		Irakasleak unitatearen helburuak, edukiak eta jarduerak aurkeztuko ditu.	Lortu beharreko ikaskuntzako helburuen eta emaitzen ikuspegi argia izateko.	Programazioa.	
E1. Aurretiatzko ezagupenei buruzko hasierako ebaluazioko berariazko proba.		0,5 h		X	Ikasleek banan-banan erantzungo dute galdera sorta.	Ikasleen jakintzak hautemateko. Helburuen eta nork bere aurretiatzko jakintzen jakitun izateko.	Galdera sorta.	
J1. Azalpena eta erakustaldia, printzipio eta magnitude elektrikoiei buruzkoa: <ul style="list-style-type: none"> Elektrotekniaren hastapenak. Printzipio elektrikoak. Magnitude elektrikoak. Joule-ren legea. Ohm-en legea. Zirkuitu elektrikoak. 	4,10	1,5 h	X	X	Irakasleak magnitude elektrikoak eta dagozkien unitateak azalduko ditu. Arbelean hainbat oinarritzko ariketa egingo ditu. Ikasleak, eman zaizkion apunteen laguntzarekin, materiala irakurriko du eta ariketak interpretatuko ditu. Fase honetan, komeni da zalantzak sortu ahala argitzea.	Oinarritzko magnitude elektrikoak ezagutzeko.	Apunteak, arbela, Power Point	
J2. Magnitude eta printzipio elektrikoiei buruzko ariketak egitea.	4,10	1 h	X	X	Ikasleek irakaslearen argibideen arabera egingo dituzte ariketak. Zalantzak izanez gero, irakasleak	Oinarritzko magnitude elektrikoak ulertzeko eta aplikatzeko.	Apunteak. Ordenagailua.	



					banan-banan edo talde osorako argituko dituzte zalantza horiek.		
J3. Ariketak batera zuzentzea.	4,10	1 h	X	X	Ikasleak banan-banan aterako dira arbelera aurreko jardueran proposatutako ariketak ebaztera. Ikaskideekin alderatuko dira ariketa horietan lortutako emaitzak. Sortzen diren zalantzak irakasleak ebaziko ditu.	Komunikazioa garatzeko eta taldeko eztabaida sortzeko.	Arbela, erretroproiektagailua, ordenagailua.
J4. Azalpena eta eztabaida, oinarritzko osagai elektrikoetara eta korrante motei buruzkoak: <ul style="list-style-type: none"> - Erresistentziak. - Bobinak. - Kondentsadoreak. - Korrante zuzena. - Korrante alternoa. - Sistema monofasikoak. - Sistema trifasikoak. 	2,4,10	1,5 h	X	X	Irakasleak labur-labur deskribatuko ditu oinarritzko osagai elektrikoak. Ez du gehiegi sakonduko. Era berean, korrante elektrikoetara buruzko eztabaida piztuko du ikasleekin. Galdera errazeki erantzun dezake, hala nola zer alde dago korrante alternoaren eta zuzenaren artean? Nola sortzen da korrantea? Etxebizitzetan zer motatako korrantea erabiltzen da?	Oinarritzko osagaia elektrikoetara gaineko ikuspegi orokorra eskuratzeko. Ikasleak jarduerako gaiaren inguruan duten hasierako ikuspuntua ezagutzeko eta ezagutzen ez dituzten kontzeptuetan sakontzeko.	Arbela, erretroproiektagailua, apunteak eta ordenagailua.
J5. Instalazio elektrikoetara neurrak buruzko azalpena: <ul style="list-style-type: none"> - Tentsio-neurrak. - Korrante-neurrak. - Potentzia-neurrak. - Erresistentzia-neurrak. Jarraitutasuna. 	4,10	1,5 h	X		Irakasleak magnitude elektrikoak berrikusiko ditu, eta gehien erabiltzen diren neurgailu elektrikoetara erabilera zuzena azalduko du.	Aurretiazko ezagupenak neurgailuen erabilerekin lotzeko.	Arbela, erretroproiektagailua, ordenagailua, multimedio analogikoa eta digitala.
J6-E2. Erakustaldia eta praktika gidatua, polimetroaren erabilera buruzkoak.	4,10	2 h	X	X	Irakasleak polimetro analogikoekin eta digitalekin hainbat neurketa egingo ditu aurretik eraikitako zenbait instalazio edo maketan.	Aurreko jardueran eskuraturako ezagupenak sendotzeko, eta neurketak egiteko lanetan trebetasuna lortzeko.	Oinarritzko instalazio elektrikoetara maketak, polimetroak, datuak hartzeko txantiloak.



					<p>Ikasleek neurketak egingo dituzte instalazio horietan: tentsioak, korranteak, instalazioetako jarraitutasuna...</p> <p>Neurgailuen erabilera zuzena baloratuko da. Horretarako, zuzentzeko txantiloia erabiliko da.</p>		
<p>J7-E3. Azalpena eta praktika gidatua, transformadoreei buruzkoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Motak. - Osaera. <p>Funtzionamendu-printzipioa.</p>	2,10	2 h	X	X	<p>Irakasleak sarrera labur bat egingo du transformadoreen, eta horien mota eta ezaugarrien inguruan.</p> <p>Ikasleek, binaka jarrita, lan bat (aurkezpen digitala, web-orria) egingo dute hainbat transformadoreen argazkiekin eta horien ezaugarri nagusiekin: tentsioak, potentzia, hoztea eta aplikazioak.</p>	Transformadoreak eta instalazioetan duten erabilera ezagutzeko, eta taldeko jarduera sustatzeko.	Katalogoak, aldizkariak, Internet.
<p>J8. Azalpena, instalazio termiko eta fluidodunetan erabiltzen diren motor motei buruzkoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Korrante zuzeneko motorrak. - Korrante alternoko motorrak. 	2, 3,10	1,5 h	X		<p>Irakasleak instalazioetan erabiltzen diren motorrak azalduko ditu. Hasierako sarreran makina elektriko baten funtzionamendua azalduko du, eta, gero, korrante zuzeneko eta korrante alternoko motorren arteko desberdintasunak azalduko ditu. Ondoren, motorrek instalazioetan duten garrantzia nabarmenduko du, eta instalazio horiek dauden motor motekin lotuko ditu.</p> <p>Azkenik, makina motaren arabera motorra nola hautatzen den erakutsiko du labur-labur.</p>	Motor motak makina mekanikoekin eta horien erabilera egokiarekin lotzeko.	Apunteak, Power Point, arbela, praktika-gela, motor motak.



					Jarduera osatzeko, benetako instalazio bat bisita daiteke, edo praktika-gelara joan daiteke.		
J9-E4. Praktika autonomoa, motor mota hautatzekoa.	2, 8,10	1,5 h		X	Balizko instalazio bat emanda, ikasleek kasuak kasu motor mota egokia hautatuko dute. Ondoren, txosten labur bat egingo dute, instalazio zehatz baterako motor egokia hautatzearen inguruan. Txostenean, ondoko alderdi hauek garatuko dituzte: instalazioaren deskribapena, beharrezko potentzia erabilgarria, hautatutako motorraren justifikazioa eta motorraren ezaugarri teknikoak (forma, potentzia, momentu eragilea, kontsumitutako intentsitatea...).	Aurreko jardueran eskuratutako ezagupenak sendotzeko eta aukeraketa egoki baten garrantzia baloratzeko.	Benetako edo simulatutako instalazioen datuak, katalogoak, Internet, datuak biltzeko txantiloia.
J10-E5. Azalpena eta praktika gidatua, eroale elektrikoak hautatzeari buruzkoak.	2, 3, 8,10	1 h	X	X	Irakasleak eroale elektrikoei buruzko azalpen laburra egingo du, eta horietako bakoitza egoki hautatzearen garrantzia nabarmenduko du. Erabilitako eroale motak deskribatuko ditu, baita horien isolamenduetan erabilitako kolore normalizatuak ere. Azkenik, eta adibide zehatzen laguntzarekin, instalazio motaren arabera eroale mota batzuk hautatuko ditu. Ez da eroale horien sekzioaren kalkulurik egingo. Ikasleek eroale elektrikoak identifikatzeko zenbait ariketa egin beharko dituzte.	Eroale elektrikoak motak identifikatzeko.	Apunteak, katalogoak, Internet, Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa.



<p>J11. Azalpena, oinarriko instalazio elektrikoetako zirkuituen elementuei eta haietan erabiltzen den sinbologiari buruzkoa.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Etengailuak. - Kommutagailuak. - Sakagailuak. - Erreleak. 	2	1,5 h	X		<p>Irakasleak instalazio elektrikoak osatzen dituzten elementuak azalduko ditu, eta horien funtzionamendua argituko du. Elementu horiek erabiltzen dituzten ohiko instalazioen adibideak emango ditu.</p> <p>Mekanismo eta instalazio bakoitzaren funtzionamendua azaltzeko, egindako zenbait maketetan oinarritu ahal izango da.</p> <p>Irakasleak instalazio elektrikoetan erabiltzen den sinbologiari buruzko azalpen laburra egingo du. Sinbolo horiek egoki erabiltzearen garrantzia nabarmenduko du, eta sinbologia hori benetako instalazioetan aplikatuko du.</p>	<p>Aurreko jardueretan eskuratutako ezagutzak sendotzeko, eta elementu horiek erabili dituzten benetako instalazioekin lotzeko –horien funtzionamenduan sakondu gabe–. Sinbologia elektrikoak ezagutzeko eta aplikatzeko.</p>	<p>Maketa eta instalazio elektrikoak, apunteak. Planoak, apunteak, marrazketako txantiloak.</p>
<p>J12-E6. Praktika autonomoa, oinarriko eskema elektrikoak egiteko.</p>	5,10	2 h		X	<p>Ikasleak eskema elektriko txikiak egingo ditu eta sinbologia elektrikoak erabiliko du: etengailua duen argi-puntua, kommutagailua duen argi-puntua, korrante-hartunea, sakagailua duen txirrina.</p>	<p>Sinbologia elektrikoak oinarriko eskema elektrikoetan aplikatzeko.</p>	<p>Apunteak, marrazketako txantiloak.</p>
<p>J13. Azalpena, automatismo elektrikoak konfiguratzeari buruzkoa: ebakitzeak, babesak eta kommutazioa.</p>	1, 6,9	1 h	X		<p>Irakasleak ikasgelan azalduko du sistema automatiko kableatu baten elikadura eta kontrola osatzen duten zatiak. Fisikoki edo proiektatutako argazki bidez erakutsiko du aparatu elektrikoak.</p>	<p>Elikadura, babes eta kontrolerako sistemak eta horiek osatzen dituzten elementuak ezagutzeko.</p>	<p>Proiektatutako aurkezpena. Aparatu fisikoak: ebakigailuak, fusibleak, magnetotermikoak, errele termikoak, disjuntoreak, kontaktoreak. Muntatutako makinaren koadro elektrikoak.</p>
<p>J14. Lantegi bat bisitatzea, aurreko J2 jardueran ikusitako elementuak</p>	6,7	1 h	X	X	<p>Koadro elektrikoak ikusgarri dituzten lantegietara edo ikastetxeko</p>	<p>Elikatzeko, babesteko eta kontrolatzeko sistemak bereizteko, baita sistema</p>	<p>Makina edo instalazioetako koadro elektrikoak.</p>



ezagutzeko.					instalazioetara bisitaldia egitea. Irakasleak aurreko J1 jardueran ikusitako elementuak ezagutzeko ausazko galderak egingo ditu.	horiek osatzen dituzten elementuak ere.	
J15. Azalpena, ebakitzeko eta babesteko aparatuen funtzionamenduari, ezaugarriei eta aplikazioari buruzkoa: <ul style="list-style-type: none"> - Ebakigailuak. - Fusibleak. - Magnetotermikoak. - Errele termikoak. - Disjuntoreak. - Kontaktoreak. 	6,7	2 h	X	X	Saio magistrala. Irakasleak aparatuen funtzionamendua, ezaugarriak eta aplikazioak azalduko ditu, eta, horretarako, proiektagailu batez edo apunteez baliatuko da. Irakasleak apunteak hartuko ditu, eta irakasleak egingo dizkion ausazko galderari erantzun die. Galdera horien bitartez, lortutako ulermena kontrolatuko du.	Automatismo-instalazioetako ebakitze- eta babeste-osagaien ezaugarriak eta aplikazioa ezagutzeko.	Automatismoen liburua. Teleskemak (Schneider). Katalogo teknikoak: Telemecanique, Siemens, Moeller, ABB...
J16-E6. Praktika gidatua, urtxintxa-kaiolako motor trifasiko bateko abio zuzenaren indarraren eskema konfiguratzeko eta berau osatzen duten elementuak hautatzeko.	Guztiak	2 h	X	X	Irakasleak praktika egingo du eta ikasleek, aldi berean, urratsak errepikatuko dituzte: <ul style="list-style-type: none"> - Indar-eskema, fusiblearekin, kontaktorearekin eta errele termikoarekin. - Motorraren magnitude elektrikoak katalogoaren bidez eta kalkuluen bidez lortzea: intentsitatea, tentsioa, potentzia erabilgarria, momentu eragilea. - Aparatu elektrikoak hautatzea: fusiblea, kontaktorea eta errele termikoa. 	Eskuratutako jakintzak praktika errealean aplikatzeko.	Automatismoen liburua. Teleskemak (Schneider). Fusibleen, kontaktoreen eta errele termikoen katalogo teknikoak: Telemecanique, Siemens, Moeller, ABB...



					<ul style="list-style-type: none">- Eroale elektrikoak eta kanalizazioak kalkulatzea eta hautatzea.- Motorraren konexioa hautatzea eta justifikatzea (Y edo Δ).		
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none">• J0 jardueran aurretiazko jakintzak baloratzeko proba egin bada, komeni da hori kontuan hartzea, erreferentziazko elementutzat, unitatearen garapenean ikasle bakoitzak egindako ahalegina baloratzeko.• UD honen pisua % 20koa da eta ebaluazio-jardueren kalifikazioak haztaperen hau du:<ul style="list-style-type: none">- E2: % 10- E3: % 20- E4: % 20- E5: % 20- E6: % 30							



3. unitate didaktikoa: AUTOMATISMO PNEUMATIKOAK ETA ELEKTROPNEUMATIKOAK GARATZEA

Iraupena: 20 ordu

IE1: Fabrikazio mekanikoko instalazio automatizatu baten osagaiak identifikatzen ditu.

IE3: Instalazio automatizatu baten osagaiak antolatu eta doitzen ditu.

IE4: Sistema automatizatuak kontrolatu eta ikuskatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Instalazio baten aginte- eta indar-elementuak hautatzea, fabrikazio-prozesua kontuan izanda.
2. Energia pneumatikoz elikatutako automatismoetarako aire konprimitua prestatzeko prozesua interpretatzea.
3. Beharrezko neurgailuak hautatzea.
4. Indar-eskema pneumatikoak konfiguratzeko, horiek kontrol pneumatikoko edo elektrikoko eskemekin konbinatuta, aplikazioaren ezaugarrietatik abiatuta.
5. Automatismoaren funtzionamendua hutsean egiaztatzea.
6. Sistema automatizatuaren abiaraztea, eskuliburuan ezarritako prozedura kontuan izanda.
7. Norberaren segurtasunerako eta sistema automatizatuaren osagai bakoitzaren segurtasunerako babes-neurriak hartzea.
8. Jarduera garatzean sortutako arazoak ebaztea.
9. Jarduerak arduraz garatzea.

EDUKIAK		Multzok			
		1	2	3	4
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Indar- eta aginte-osagaiak identifikatu eta hautatzea, fabrikazio-prozesuaren zehaztapenen arabera. • Automatismo pneumatikoen eta elektropneumatikoen indar- eta kontrol-eskemen konbinazioak interpretatzea. • Eragingailuak eta kontrol-elementuak muntatu eta desmuntatzea. • Sistemaren tresneria abiaraztea. • Tresnak eta erremintak muntatzea. • Sistema automatizatuaren elementuak erregulatzea. • Produkzio-sistema kontrolatzea. • Arazoak identifikatu eta ebaztea. • Neurtzeko erremintak eta tresnak erabiltzea. 	X X		X X X	X X X X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Automatizazio pneumatikoa eta elektropneumatikoa. • Sistema automatiko pneumatikoen eta elektropneumatikoen aplikazioak fabrikazio mekanikoan. • Fabrikazio mekanikoko sistema automatizatuaren erabiltzen den energia pneumatikoa. 	X X X			



	<ul style="list-style-type: none"> Kontrol-aldagaiak eta horien neurri-unitateak sistema automatiko pneumatikoetan eta elektropneumatikoetan. Eragingailuak eta kontrol-elementuak muntatu eta desmuntatzeko erremintak eta tresnak. Makinak muntatu eta desmuntatzeak dakartzan laneko arriskuak eta ingurumenekoak. Aginte-elementuen kontrola eta jarraipena. Eragingailuen kontrola eta jarraipena. 						X X X	X X
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Arazoak ebazteko ekimena. Autonomia eta erantzukizuna lanak egitean. Ordena eta garbitasuna lanpostuan. Metodologia zereginak egiteko diseinuan. Laneko arriskuen prebentzioa gauzatze-prozesuan. 				X X		X X	X
JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK	
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J0. UDaren aurkezpena.		0,5 h	X	X	Ikaskuntzaren helburuak aurkeztuko dira, unitate didaktikoa moduluaren barruan kokatuko da, eta modulua osatzen duten gainerako unitateekin lotuko da.	Fabrikazio mekanikoan sistema automatiko pneumatikoei eta elektropneumatikoei dituzten aplikazioak ezagutzeko. Ikasleak alde aurretik jarrera egokia hartzeko, garatu beharreko lan motarekiko.	OCDA. Gardenkien bidez edo fisikoki, aplikazioak eta erabili beharreko materiala erakutsiko dira.	
E1. Aurretiazko ezagupenei buruzko hasierako ebaluazioko berriazko proba.		0,5 h		X	Ikasleek banan-banan erantzungo dute galdera sorta.	Ikasleen jakintzak hautemateko. Helburuen eta nork bere aurretiazko jakintzen jakitun izateko.	Galdera sorta.	
J1. Azalpena, sistema pneumatikoetarako eta elektropneumatikoetarako aire konprimitua prestatzeari buruzko.	2-3-7-8-9	1,5 h	X	X	Irakasleak aire konprimitua prestatzeko faseak azalduko ditu: -Iragaztea. -Konpresioa. -Lehortzea.	Ikasle bakoitzak ezagutu ditzan automatismo pneumatiko eta elektropneumatikoetarako energia pneumatikoa prestatzeko prozesuaren funtsak.	Powerpoint. Ondokoen eskuliburuak: iragazkiak, konpresoreak, metagailuak, lehorgailuak eta horien elementu osagarriak presioa erregulatzeko, manometroak, purgadore	



					Ikasleek, 3 edo 4 laguneko taldetan, irakasleak azaldutako kontzeptuetatik abiatuta eta konpresoreen gela bisitatu ondoren, konpresio- eta metaketa-faseak, eta lehortze-fasea (hozte-zikloaren bidez) osatzen dituzten elementu-blokeetako bakoitzaren funtzioak zerrendatuko dituzte.		automatikoak. Konpresoreen gela. Praktiken koadernoak.
J2. Azalpena, mantentze-unitateen funtzionamenduari buruzkoa.	2-3-7-8-9	1 h	X	X	Irakasleak mantentze-unitatearen eta elementu integratu bakoitzaren eginkizuna azalduko du. Jarraian, ikasleek, 2 laguneko taldetan, irakasleak azaldutako kontzeptuetatik abiatuta, laborategi pneumatikoko mantentze-unitatea aztertu ondoren, haren osagai bakoitzaren eginkizunak zerrendatuko dituzte.	Ikasle bakoitzak jakin dezan zein garrantzia duen aire konprimatua prestatzeko prozesuak instalazio pneumatikoetan eta elektropneumatikoetan.	Powerpoint. Mantentze-unitateen eskuliburuak. Mantentze-unitateak. Praktiken koadernoak.
